

GRADU AMAIERAKO LANEN ETA MASTER AMAIERAKO LANEN PROPOSAMENA 2023/24 IKASTURTE AKADEMIKOA CAMPUS BIZIA LAB PROGRAMA

Gradu Amaierako Lana / Master Amaierako Lana

Izenburua

BIODISEINU ekoiraunkorrek eta birziklagarriak arte-sorkuntzaren eta produktu-diseinuaren arloan.

Deskribapen laburra (gehienez 300 hitz)

4. mailako irakasgaietan, hala nola Paper art eta Grafika Teknologikoan, Sorkuntza eta Diseinu Graduan, hamarkada bat baino gehiago daramagu biodiseinuaren eta diseinu ekoexperimentalaren erreferenteak erabiliz lan proposamenak egiten, paper zuntz birziklatuak eta askotariko belar-zuntzetatik edo bestelako landare-hondakinetatik datozenak erabiliz, artearen eta diseinuaren testuinguruan irudiak eta objektuak sortzeko.

Era berean, hainbat proiektu egin ditugu itsuentzako ilustrazioetan, edo moda iraunkorreko lanetan, apainketan, landare-zuntzezko apaingarri eta kapeletan, paperezko bitxietan, paper pintatuen diseinuetan, etiketetan, flyerretan eta kartel iraunkorretan, lanpara gisako objektu desberdinen ekodiseinuetan eta ostalaritzari buruzko bestelako proposamenetan.

Diseinu ekoexperimentalaren erreferenteak eta ingurumenarekin konprometitutako diseinatzailleak bete behar dituen printzipioak ezagutzea proposatzen dugu.

Materialak biodegradatzen, berrerabiltzen eta objektu berrietan birmoldatzen saiatzen gara, ingurumena errespetatuz eztabaida sortzen dugu, eta prozesu edo materialetan eragin negatiboa ezabatzen saiatzen gara.

Aukera ematen diogu ikasleari hondakinak ez sortzeko, Zero Waste ideologiarekin lan eginez, eta, horretarako, sortzen duen ingurumen-inpaktua errespetatuko duen produktu baten erabateko jasangarritasunera hurbiltzeko erabilitako energia-motarekin arduratsuak izango dira. Ildo horretatik, naturako erreferente eta ereduak erabiltzen ditugu.

Ikaslea aukeratzeko hautaketa-irizpideak

Arte Ederren fakultatekoak izateaz gain, proposatutako gaiarekiko interesa eta konpromisoa baloratuko dira, eta kontuan hartuko da planteatutako lan-ildoetan aldez aurretik izandako esperientzia.

Campusa

Bizkaia

Ikastegia (Fakultatea/ Eskola)

Arte Ederren Fakultatea

Titulazioa

Sorkuntza eta Diseinuko Gradua / Ikerketa eta Sormena Artean Masterra

Elaboraziorako eta defentsarako hizkuntza

Gaztelania / Euskara

Irakasle arduraduna

Nerea Legarreta Altzibar

Posta elektronikoa

nerea.legarreta@ehu.eus

Campus Bizia Lab (CBL) proiektua

ARTEKOM

CBL proiektuaren webgunea

<https://www.ehu.eus/es/web/iraunkortasuna/artekom>